

Taula honetan, gai bakoitzari dagozkion hiztegia eta hizkuntza egitura zenbait aurkituko dituzu. Ikasleekin lant daitezkeen hitz eta egitura proposamenak, zure beharren arabera osa edo alda ditzakezu.

Istorioa/gaia	Hiztegia eta deskribapen proposamena
Lili dantzari.	Burukoa, atorra, gona, txalekoa/barnekoa, abarkak, urradura, negarra, malkoak, pilotalekua, beztitu/jantzi, kontent, pozik, uros, triste, horia, gorria, berdea, arrosa kolorekoa, lehenik, gero, ondotik, azkenean, azkenik Hastapenean Lili dantzariz beztitzen da. Gero, atorran urradura bat badela ohartu da. Orduan negarrez hasi da. Baina beste gisa batez jantzirik atera da eta pozik da.
Lilik kozinatzen du.	Murru armairuak, sukaldea, kozinatu, ontziak, irabiagailua, koilara, balantza, arroltzeak, kukuak, txokolatea, basoa, irina, moldea, labea, erre Lehenik, Lilik ontziak atera ditu murru armairutik. Ondotik, osagaiak nahasi ditu ontzi handi batean. Gero, bixkotxa labean sartu du. Azkenik, ohartu da bixkotxa erre dela.
Lili ile apaindegira doa.	Ileak, luzeak, moztu, erlea, ile apaintzailea, ile apaindegia/apaindegira, joan/doa/joaten da, busti, orrazi, orraztu, orrazkera Hastapenean, Lili ez da ongi orraztatua. Orduan, ile apaindegira doa. Ile apaintzaileak Liliren ileak bustitzen ditu. Gero, ile apaintzaileak Liliren ileak mozten ditu. Azkenean, Lili arras ongi orraztatua da.
Merkatura doa.	Beztitu/jantzi, paltoa, soinean, ezarri, zakua/poltsa, fruitu, barazki/baratzekari, etxe(a)n/etxetik/etxea/etxera, hautatu, erosi, atera, sartu, itzuli, bete. Lilik/Ninok paltoa soinean ezartzen du. Gero, zakua harturik etxetik ateratzen da. Merkatuan fruituak eta baratzekariak erosten ditu. Etxera itzultzen da zakua ongi beterik.
Ez!!	Dabantala/mantala, pintura, gorria, urdina, horia, pintzela, irakaslea, mustuka, ontzia, ura, soinean eman, elkarri bota/aurtiki, irri egin, erasiatu, garbitu Lilik eta Ninok dabantalak soinean eman dituzte. Ondotik, pintzelez pintura elkarri aurtiki diote. Orduan irakasleak erasiatu ditu. Azkenean, Lilik eta Ninok mustukaz eta urez dena garbitu dute.
Ihauteriak	Mozorroa, xingolak, adarrak, burua, karroa, Zanpantzar, sua, suziriak, ibilaldi/desfile, mozorrotu, prestatu, su eman Lehenik, Lili eta Nino mozorrotu dira. Batak oilo burua ezarri du du, besteak adarrak eta kolorezko xingolak. Ondotik, Zanpantzar karroan ezarri dute eta ibilaldia egin. Gero, Zanpantzar prestatu dute erretzeko. Azkeneik Zanpantzar erre dute.

Plast!	Sokorri jaka, kaskoa, (bi palako) arrauna, kayaka, arroka, erreka, soinean eman, abiatu, uzkaili, jo, hautsi, erori, busti Lehenik, Lilik/Ninok arrauna hartu du, sokorri jaka eman du soinean, eta kaskoa buruan. Gero, Lili/Nino errekan beheiti abiatu da kayakean. Baina ondotik arroka bat jo du eta kayaka uzkaili da. Azkenik, Lili/Nino bustia da, eta arrauna hautsi du.
Lili/Nino bidaiatzen da.	Baliza/maleta, jantziak, hegazkina, segurtasun uhala, beldur, ez gustuan, dardarka, pozik, kontent, irriz, bete, presatu, ezarri, igan, sartu, jautsi, atera, irriz Lehenik, Lilik/Ninok baliza jantziz bete du. Ondotik, hegazkinera igan da. Gero, segurtasun uhala lotu du, beldurtua da/dardarka ari da. Azkenean, hegazkinetik jautsi da, pozik.
Istripua	Belauna, suhiltzailea, ospitalea/ospitallean/ospitalera, ohea, igeltsua, mustatxa, dantzatu, eraman, erori, kolpatu, min hartu, maitemindu, norbaiten ezagutza egin Hastapenean, Lili dantzan ari da. Ondotik, erori da eta belaunean min hartu du. Orduan, suhiltzaileek ospitalera eraman dute. Lilik zangoa hautsia du eta igeltsua ezarri diote. Azkenean, Lilik ospitalean beldar mustatxadun baten ezagutza egin du eta biak maitemindu dira.
Piknika	Piknika, oihala, janaria, pitxerra, ogia, saskia, zuhaitza, loaldia, aldaxka/adarra, azpian, gainean, txoria, piknikatu, bazkaldu, kaka egin, zikindu, atzarri, garbitu Lehenik, Lili/Nino piknikatzen ari da, zuhaitz baten azpian. Gero, oihalaren gainean etzan da eta loaldia egin du. Txori bat zuhaitzaren aldaxka batean pausatu da eta Liliren/Ninoren gainera kaka egin du. Ondorioz, Lili/Nino atzarri da, eta txori kaka garbitu du.
Olentzero	Olentzero, Mari Domingi, makila, astoa, basta, saskiak, ikatza, esku argia, kapelua/buneta/txapela, burukoa, lepoko zapia/fularra, krakada, arnoa Hastapenean, Olentzero eta Mari Domingi ibilki dira. Gero, Olentzerok etxe bateko atean jotzen du, ikatz saski bat badu. Ondotik, Olentzero eta Mari Domingi etxean sartzen dira eta etxeke jendeekin krakada egiten dute. Azkenik, Mari Domingi eta Olentzero etxetik joaten dira.
Mendi ibilaldia	Zapatak/oinetakoak, burukoa, makila, mendia, xendra, unatua/akitua, hatsantua, gorri-gorria, jantzi/beztitu, prestatu, atera, ibili, tontor/gailur/kasko Lehenik, Lilik/Ninok zapatak soinean ezartzen ditu. Ondotik, buruan kapela ezartzen du. Gero, makilak harturik, ibiltzera joaten da. Azkenean, etxera buruz itzultzen delarik, zinez akitua da.

Zaldi gainean	Botak, kaskoa, zalditegia, zela, hedeak, putinka/putarka, erori, min hartu/kolpatu, igan Hastapenean Nino/Lili ageri da. Kaskoa ezarria du buru gainean eta botak oinetan. Zalditegira buruz doa. Ondotik, zaldiari zela ezartzen dio bizkarrean. Gero, zaldi gainera igaten da baina zaldia putarka hasten da, eta Nino/Lili erortzen da. Azkenik, Lili/Nino minez dago lurrean.
Trikotatzen	Orratzak, artilea, lepokoa, burukoa, anitz, gustukoa du, ez du gustukoa, trikotatu, ezarri, luzatu Hastapenean, Lilik/Ninok artilea eta orratzak hartu ditu trikotatzeko. Gero, trikotatzen duena anitz luzatu da. Ondotik, Lilik/ninok trikotatu duena lepoan ezarri du, baina ez du gustukoa. Azkenik, buru gainean ezarri du eta gustukoa du.